

## **URDAIBAIKO BIOSFERA ERRESERBAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ZUZENTZEKO EKZP PLANAREN APROBAZIOA.**

*Gernikan, 2016ko irailaren 28an.*

Atzo, Irailak 27an ospaturiko Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak definitiboki onartu du (EKZP) Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana.

Egoera honen aurrean, berriz ere Bizkaiko Basogintza Elkartetik, dokumentu berri honi buruz gure desadostasun guztia adierazi nahi dugu eta baita ere beronen onarpenagaitik, zeren Plan berri honek limitazio eta/edo debeku garrantzitsuak ezartzen ditu basogintza arlorako eta baita kaltetutako baso jabeentzat ere. Aipatzekoa da ere, berriztatze prozesu honetan egoneko hutsuneak ere ez direla kontutan hartu eta ezta ere, Elkarte honek egiñiko alegazio eta aportazio guztiak beti ere baso jabeen interesak defendatuz.

Elkartek egiñiko aurreko ekimenak, hala nola, Urdaibai Patronatuko Bilkuran egiñiko Planaren ez onespina eta baita Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailean Plan berria erretiratzearen egiñiko eskaera, non ahaztuta eta ez onartuak izan ziren.

Plan berri honek, basogintza esparruan Protekzio eta Zonifikazio guneen azalera haunditzea suposatzen du, aparteko baldintzak ezartzen dizkio baso-jarduerari, eta agian larriena, kaltetutako baso jabeek ez dizkietela definitzen edo ezartzen kalte-ordainik da.

Horregaitik, ez dugu onartzen, 25 urte iragan eta gero Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren deklarazioaz, herritarren eskubideak baldintzatzea inongo kalte-ordainik ezarri gabe, are gehiago, aurreko planean (EKZP) ezarritako limitazio eta/edo debekuen murrizpen handiagoak ezartzen dira plan berri honetan. Edozein araudiren oinarria lurraldeen kalte-ordain eraginkorra edukitzea da herritarren interes komuneko balore naturalak zainduz.

Azkenik, Irailaren 16an Gernikan egin genuen batzar informatiboan esan genuen bezela, Elkarte honetako aholkulari juridikoak plan berri hau aztertzen jarraitzen dute eta honela Elkarte honek egingo dituen hurrengo ekintzei buruz informatuko diegu kaltetutako baso jabeek.

**Asociación de Forestalistas de Bizkaia/Bizkaiko Basogintza Elkartea**

Busturialdeko Gobernu Batzordea.

